


Eliza eta foru eskualde zaharrak hizkuntzaren historiaren lagungarri

Jose Luis Lizundia Askondo
Euskaltzaindia

Euskalkien mapa egikeran, oraintsurarte, hizkuntzalariek egin dituzten aldaketak, nik orain dakardan eliza eta foru eskualde zaharrak, hizkuntzaren historiaren lagungarri izan daitezkeela, gutxi erreparatu dute. Beroren diziplinatik lan oso onak egin dituzte, historialariek gutxiago, ia denak erdaldunak izan direlako. Elizaren ikuspegitik ere, gai honetaz, propioki, egin den lanik ez dut ezagutzen. Foru eskualde zaharrez Nafarroan eta Bizkaiko merindadeez, Arabako kuadriliez, Zuberoako mezu-tegiez eta Gipuzkoako Erdi Aroko eskualdeez ikerketa gutxi egin da. Bereziki, Erdi Aroa argitzeko, baita, gaur ere, euskalkien eta azpieuskalkien banaketarako lagungarri izan zitezkeen lehen diziplina arteko ikerketa hauek.

Lehendabizi, elizarenak aztertuko ditut, politikoak baino askoz aldakuntza gutxiago izan dutelako. Gainera, hizkuntzalariek badakite zer eragin duen edozein erakunde hizkera batean eta, antzina, euskal herritarrentzat eragin nagusia Eliza Erakundeak zuen. XIX. mendearen hasieran Napoleonen Konkordatorarte, mendez-mendetan, hiru diozesietan hedatzen zen Iparraldea: **Baiona**, **Akize** eta **Olorue**. Hegoaldean, Gasteizkoa 1862an sortu arte, lau diozesi zeuden, **Iruñekoa**, Nafarroa gehiena hartzen zuena eta Gipuzkoako Probintzia, gauza bera; **Kalahorreakoa**




Bizkaia gehiena, Araba, Tuter eta Gobiaran salbu; **Santander**koa Bizkaia-Araba / gehienak. Enkarterri guztia, Gordexola salbu, eta Tuterako Elizbarruti txikiak Erribera zati baten zegoen hedatua.

Oraindik egiteke dago Kalahorrako artziprestazgo eta bikarien mapa. Dena dela, saiatu naiz alboan doan bibliografiaren arabera eta banan-banan *Diccionario histórico-geográfico* eta beste datuetatik hartuta. Euskara gutxi edo asko gordetzen den tokietatik hasiko naiz, sartu gabe beste xehetasun batzutan, Ipar Ekialdetik hasita: Durangoko uri artxibotik jasota konturatu naiz Debabarreneko parrokiek, **Durango** artziprestazgoaren **Elgoibarko** bikaria osatzen zutela, Elgoibar bera, Eibarko bi, San Andres eta Aginaga, Mendarozabal, Azpilgoeta, eta Astigarribia, Mutrikun. Parrokia hauetan, Mendebal euskara egiten dela ziurtatu du Koldo Zuazo ikerlariak. Beronen ikerketa dialektologiaren lagungarri, nik eman nizkion xehetasun hauek. Orobat, Debagoieneko parrokiek denek osatzen baitzuten zortzi bat mendetan Leintz artziprestazgoa: Bergarako lau parrokiek, Angiozar eta Antzuolako biek; Oñatiko hirurek; Arrasateko laurek; Leintz Gatzagakoak, Eskoriatzako zortziek; Aretxabaletako bederatziek eta Aramaioko bederlatzi elizatetatik zortzik, hain zuzen, Debarra doazen zortziek. Hauek guztiek osatzen zuten mendez-mendetan **Leintz** artziprestazgoa. Ez da nahasi behar **Leintz** erret ibarra, askoz handiagoa baitzen. Ez iezadazue esan hizkuntzaren eta euskalkien aldetik ere, batasun bat ez duenik, dotri-netan ere ikusten dena!

* * *

Durangoko artziprestazgoak merindade historikoez gain, Aramaio konterriko Oleta ere, beste azpieuskalki batekoa, Pedro Pujana euskaltzain ohorezko zendu berriak eta bertako semeak argitu zuenez eta Elgoibarko bikariak osatzen zuen. Mapa



bagenu, **Debarroko Markina**, beraz, Elgoibarko bikaria, Bizkaiko Markina merindadea, **Durangalde** eta **Leintzekin** aspaldiko batasun bat mendez-mendetako, azpieuskalki berekoa, nire ustez, aurkituko genuke. Ez ziren aspaldidanik pasatuko hainbeste mendeetako batasun bat bi artziprestazgo hauetan. Bestalde, gauza jakina da Elgoibar eta Arrasate hiri bezala agertzen direnean, ez dela jartzen Gipuzkoa direnik, oraindik. Leintz eta Durangalderako egindako dotrinak hobeto aztertu beharko lirateke kasu horretan. Besteak beste, behin baino gehiagotan aipatu den Leintz-Gatzagako abade jaunaren dotrina. **Markinako** merindade txikiko hiru udal eta bi parroquia bakarrik hartzen zituztenak ere, Durangoko artziprestazgoko bikaria bat osatzen zuten. Jose Maria Lakarra historiagileak eta bestek, behin baino gehiagotan aipatu dutenez, baita ere Juan San Martinek, batasun bat zuten bi Markinek, alegia, Elgoibarko bikariakoak eta Artibaikoak. Bestalde, berdintsu zen eibartar edo markina-xemeindar izan Juan Antonio Mogelentzat, euskalkiaren aldetik ere, edo durangar ala markinar izan Astarloa anaiekin batera. Denak azken baten artziprestazgo berberekoak baitziren. Zornotzako merindadeak ere bere 5 parrokiekin: Bernagoitia, Amorebieta, Etxano, Ibarruri eta Gorozikak, Durangoko artziprestazgoaren bikarietarikoa bat osatzen zuten.

* * *

Hainbeste aipatu den *Doctrina cristiana del vascuence de Llodio* delakoaz, jakin behar litzateke lau haranetako biztanle gehien zuten herria Ludio zela **Orozkoko** bikariaren barruan, **Orozko** bost parrokiekin, **Laudioko** harana, **Okondo** birekin eta **Gordexola** laurekin. Beraz, egoera politiko desberdinetako Orozko XVIII. mendean Bizkaira pasatua, Gordexola, Enkarterrikoa eta Okondo, Aiara foruarekin eta Ludio Bizkaiko foruarekin, baina Araban. Laurok osatzen zuten eliz eskualde bat, mapa baten begiratuta eskualde natural bat. Jende askok ahaztu dute Orozkoko euskara eta Ludiokoa antzerakoak zirela, seguru asko, Okondokoarekin ere antza izango zuten, ikertu beharko lirateke Jose Paulo Ulibarrikoaren lanak. Zoritxarrez, Gordexolako euskararen erreferentziarik ez dugu.

* * *

Busturiko euskararena ere agertzen da, alegia, **Busturia** esaten denean, ez Axpe elizatea, baizik eta merindade osoa. 1660ko dotrina, Bermeon agertutakoa, ez ote zen Busturiko merindade osokoa?, hots, “Barrukoentzat azkenean iminten diren arimen salbaziñorako be” Busturiko bikariako abade jaunen enkarguz”. Beraz, hemen, agertzen da berriz ere dotrinak eskualdeka egiten zirela eta eskualde horiek eliz eskualdeak eta foru eskualdeak zirela.

Eliz artziprestazgo edo bikariak eta merindadeek norainoko kidekatasuna duten banan-banan ikertzerik ezinezko gertatu bazitzaigu ere, horretarako norbaitek espreski ikertu behar litzuke dauden material oso aberatsak, Kalahorrako elizbarrutiaren artxiboa. Tartean, esan dezaket eta, Juan Manuel Etxebarria zeberioztarra lagun Zeberio euskara Arratiakoan sartzen dela eta ez Bonapartek, bere mapan, Jose Antonio Uriarteren eraginez, Arrigorriagako azpieuskalkian. Esan behar da, mendez-mendetan, Zeberio **Arratiako** merindadeko herrietako bat zela eta artziprestazgo ere. Bizkaiko artziprestazgo zaharrenetarikoa egoitza Erdi Aroko dokumentu baten ikusten denez, Arantzazun, Arratiako Arantzazun, noski, eta ez Oñatikoan, omen zegoen, gero XIX. mendean, Billarora/Areatzakora pasatu bazen ere, Gasteizko diozesia sortukeran. Arantzazuk aurten arte, barrendegi bat izan du Zeberion, bestalde. Beraz, Arratiako azpieuskalkia ikertzeko merindade eta artziprestazgoa kontuan izan behar lirateke. **Uribeko** artziprestazgo eta bikaria handia Lauroko kofradian, Arbilduko San

Migel ermita batzartzen zen XIX. menderarte, hiru “colectorietan” banatzen zen: 1. **Kostaldea**, Getxotik Lemoizera; 2. **Txorierrikoa**, Larrabetzutik Erandioraino, Deustu barne, Deustuko euskara Txorierrikoa izan daitekeela ziurtatu ei du norbaitek. **Mungialdekoa**, hirugarrena: “la Vega de Munguia” dio Labairuk.

* * *

Araba mendebaldeko euskararen aintzinakotasuna aztertzeke ezinbestekoa litzatekeela, uste dut, Kalahorraz gain, Burgos eta Santandereko elizbarrutien artxibotetara jotzea. Kalahorrako artziprestazgokoak ziren Egiraz, Ganboa, Zigoitia, Armentia, Kuartango, Aiara, Erribera, Trebiñuz gain. Aspaldi aipatu diegu, azkenengoz, maiatzean, **Trebiñu** uriko Udaletxean, Henrike Knörr, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Koldo Zuazo eta Roberto Perez de Viñaspre mahaikideei. Interesgarria izango bailitzateke aztertzea Trebiñuko artziprestazgoa; buru Argantzón, hartzen bailituzte, ez bakarrik egungo barrendegiko parrokiak, 1955erarte Kalahorrakoak bestalde, sekula santan ez Burgoskoak, gehi Gasteizko elizbarrutia sortu arte XIX. mendearen erdialdean, baita ere Arabako zenbait herri, hala nola, Urizaharra. Portal, euskal idazlea ez ote zen Urizaharrako semea izango eta bukatu Trebiñuko artzipreste Argantzónen? Jakingarria litzateke, jakiteko modu bakarra Kalahorran ikertzea. Patxi Salaberri Zaratiegi adiskideak, bere doktorego tesian, *Eslaba aldeko euskararen azterketa. Toponimiaren bidez* (Onomasticon Vasconiae, 11) argitaratuan, bide interesgarria markatzen du euskara galdutako eremu baten ikerketa dialektologiko alorrean. Arabako kuadrillen, haran nagusien eta eliz eskualdeen arteko ikerketa egin gabe dagoenetik, bakarrik aipatuko nuke **Ganboa** eskualdea. Ganboarren leinuen aipamen asko egin dituzte historiagileek. Euskararen eta euskalkien aldetik, nik dakidala, ez ordea. Noski, hori ikertzeke Ganboa eskualdearen hedadura desberdinak kidekatu behar lirateke, alegia, gauza bat dela Ganboa artziprestazgoa, beste bat, ibar osoa eta hirugarrena, ibar administratiboa, alegia, lehen Ganboako Udala zena, 1957an desagertua, urtegiak zenbait herri urperatu zituenean. Eliz eskualdeak 21 herri hartzen zituen. Arabari dagokionez, eta baita ere Nafarroako Lizarra merindadealdeko zati bat, **Berberiego** artziprestazgoaren hedadura ere aztertzeke litzateke, bertan egon





daitezkeen euskal toponimoak ikertuz. **Urduña** ere hemen sartzen dut, zeren eta hiria Bizkaia izan, elizaz, mendez-mendetan, bikaria-artziprestazgo berbera baitzuen, bai hiriak, bai bere 4 herrixkek eta baita Arrastariako eta Urkabustaizko herriak ere. Horiek osatzen zuten eskualde hori. Hau ere euskararen mugan eta gaztelaniatik hurbil, hain zuzen, Losako merindadearekin, Gaztela Zaharreko 7 merindadeetariko bat, hain zuzen.

Egungo Euskal Herri historikotzat jotzen denetik kanpo, interesgarria litzateke Kalahorrako diozisi handiaren artziprestazgo banaketa arakatzea. Nola liteke, bestela, 1955eko Cicognani-Francoren konkordatorarte kalagurritarrak elizaz ziren Valle de Yanguas eta San Pedro Manrique eskualdean Joakin Gorrotxategik aipaturiko euskal aztarrenak aurkitzea, nahiz eta 1833 probintzia banaketaren ondoren Soriako izan?

* * *

Enkarterriko euskararen aintzinakotasunaz, hedaduraz eta bestez, oso ikerketa sakon gutxi dago, bat ere ez esateagatik. Askoz hobe ikertuta dago Errioxakoa, Juan Bautista Merino Urrutiak eta bestek, Bizkaiaren Mendebaldean dagoen eskualde historikoa bano. Azkenengo euskara galdu zuena Gordexola zen, seguru asko, Kalahorrakoa zelako, lehen ikusi dugun bezala. Gainontzekoena ikertzeko, bi artxi-botara jo behar da Santandereko elizbarrutia, XVIII. mendean sortua berau, Santillana del Mar-eko klausurako monjen komentu baten dagoelarik tornu eta guzti, ikertzeko

zailtasun guztiekin. Aurretiaz, Burgos artzapezpikutegikoa horra pasatu baitzen Valpuestako Erdi Aroko elizbarruti zaharra, Enkarterri, gehi Aiararen Mendebaldea, Tudela eta Gobia haranak hartzen zituen. **Castro Urdiales**ko artziprestazgo handiak izango luke zer ikertu alderdi horretan, Portugalete, Balmaseda, Laredo eta Castrokoko bikarien azpieskualdeekin. Ez ote dago Santander eliz eskualde horietarako euskarazko dotrinarik edo agiririk, euskararen aipamen solte apurrenik? Euskalki edo azpieskalkia baino gehiago, euskararen presentziaren antzinakotasuna ikertzeko, eskualde interesgarri bat Tudelako eskualdea izango litzateke. Ez nahas, mesedez, Tudela asko baitaude, Nafarroako Erriberakoarekin, baizik eta Artziniega burua zuen artziprestazgoa eta harana. Erdi Aroaren hasieran, Valpuestako elizbarrutikoa izan zen, gero Burgosek irentsi zuena, XVIII. mendean, ondoren Santanderekoa izan zen eskualde hori. 1862an Gasteizera pasatu ziren Arabako ziren herrixkak, baina ez ordea, Tudela ibar administratibokoak, honek Udalak izatea galdu zuenetik, Menakora pasatuak baitaude, elizaz, ordea, Santanderrekoekin jarraiturik. Federiko Barrenengoa eta beste asko konturatu ziren, Aiarako forudun eta kuadrillako, Artzeniegako inguruko arabar herrixketan, euskal toponimiaren presentzia oso urria zela. Burgoskoa zibilki eta elizaz Santanderrekoaz, ordea, nik dakidala ez dago ikerketarik eginda, salbu, Jose Bustamante Briciok, bere *La Tierra y los Valles de Mena*, Gráficas Ellacuria, Bilbao, 1971. Oraindik ezagun diren herrixka zenbaitetan, badirudi, euskal toponimia agertzen dela, hala nola, Anzo, Arza, Artieta, Orrantia, Aiega, Burceña, Irus, Obilla, Ungo, Larrate, Ziella, Zirion, Aranduenen herrixketan, bederen. Ipar Mendebaldeko Tudela eskualde honek mereziko luke ikerketa bat bultzatzea, xehetasun historikoak, Santander eta Burgosen arakatuz.

* * *

Gipuzkerara pasatuz, mendez-mendetako Arciprestazgo Mayor de Guipúzcoa eta gipuzkeraren hedadura gauza bera da, parrokiar-parrokia¹. Dotrinak ere, zenbait dotrinak, horrela erakusten dute (*ikus eranskina*). Eta Felipe II.ren indarrez Erromak, Baionari lau artziprestazgo kendu arte, hots, Baztan, Doneztebe, Bortziri eta **Hondarribikoa**, esan dezakegu Hondarribiko sei parrokiak ere, Irun, Pasaia Donibane, Lezo, Oiartzun eta Erreterria, horiek direla, hain zuzen, Ekialdean, gipuzkeraren agiten ez duten herriak. Fidel Altunak, Juan Bautista Agirre “*Erakusaldiak Antologia*” liburukian pista jakingarriak ematen ditu, “Gipuzkoako eliz administrazioan ere kargu garrantzitsuak izan zituen, Gipuzkoako Artziprestazgo Nagusian: Asteasu eta beste zenbait herri biltzen zituen **Herniobe**a korriedoko diputatu gisa azaltzen zaigu aurrena eta, ondoren, Gipuzkoako Artziprestazgo Nagusiko diputatu nagusi”. f “Una esposicion en bascuence del citado Astete que trabajé con encargo de la Venerable Hermandad de *Erniobe*”. f “El dialecto en que se escriben las instrucciones es un medio entre el de **Beterri** y el de **Goyeri**. Su diferencia del de Hernani y San Sebastian v.g. *en dezute, dute, duenac, dutenac, dituzute, dituzte, & c.* que es segun el modo de San Sebastián; y en el nuestro *dezue, due, duanac, duenac, dituzue, ditue*”. Beterri eta Goyeri arteko hizkera, jakina, egilearen herriko hizkera genuke aipu horretan: Asteasukoa. 1350ean 10 korriedotan zegoen banatuta “Gipuzkoako Artziprestazgo Nagusia”: Segura, Bozue, Gaztainaga, Soreasu, “Sierra” (Saiatz), Mutriku, Getaria, Sanctus Milianus/ Herniobe, Tolosa eta Sancti Sebastiani/ Donostia. Aipamenik seguruenen Sebastian Insaustiren lan honetan “División de Guipúzcoa en valles”, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 8. zenbakia, 1974, 226. orrialdea. **Herniobe**a korriedoak parrokia hauek hartzen zituen:

1 Hain zuzen, 1027.urtean, Iruñeko Elizbarrutiaren lurralde-mugaketan, honako hau agertzen da”... *cum omnibus supra-dictis vallibus, et tota Ipuzkoa*”.



Zizurkil, Asteasu, Larraul, Alkiza, Hernialde, Irura, Amasa-Villabona, Andoain eta Urnieta. Hain zuzen Agirre Asteasuko euskara **Herniobeko** euskara izango da, seguru asko, Gatzagako abadearena, **Leinzkoa** den bezalaxe. Gipuzkoakoari dagokionez, Insausti eta Juan San Martinek Erdi Aroko eskualde historikoak, artziprestazgo edo korriedoak konparaturik egindako lanak ezagutzen ditugu; baina, nik dakidala, herriz-herrizko kidekatzea egin gabe dago oraindik, zeren eta Insausti berak airean uzten baitu nongoak ziren Bergara, Oñati, Antzuola, Elgeta, jakin gabe hauek elizaz Leinzkoak zirela. Soreasu eta Iraurgi gauza beretzat jotzen du Juan San Martinek. Hobeto zehaztu behar litzateke hau, zeren eta Iraurgi, egungo Azpeitia, Azkoitia izanik, Zestoako parrokiak Soreasukoak izan baitzitezkeen. Beste batzutan kidekotasuna argi dago, herri batzuk zehazteko badaude ere. Baina, ikerketa, hiru parametro zehatz hauekin egiteke dago, alegia, eliza, foru, hizkuntza loturei buruzkoa.

Nafarroarekiko ikerketa egingo balitz, seguru asko, Erdi Arotik hasita xehetasun interesgarriak aterako liratekeela “Rol de pueblos vascongados y rol de pueblos romanizados” deitzen diren Iruñeko elizbarrutiko sailkapenetan. Nafarroako merinda-

detariko batek azterketa sakona mereziko luke, ene ustez, Erriberrikoak, alegia, zeren eta Lizarrakoan / Estelleriaren azterketa zenbait eginak baituzte, hasi D. Manuel Lekuonak eta, 1990ean, Jose Maria Satrustegik eta beste batzuk. Erriberrikoa, Patxi Salaberri Zaratiegik aztertua badu ere. Iaz, berarekin, Uxuetik, Aragoi ibairaino joan ginen. Gogoan nuen bertako leku izenak ezagutzeko eta hain zuzen, Murillo Frutoraino joan ginen. Zergatik ote Aragoi ibai ertzerain euskal toponimia izatea? eta gero gutxi batzuk bakarrik? Bardeetan soilik eta Tuterako merindadean ia ezer ez? Hain zuzen, Uxuen, Murillo, Santakara Iparraldetik, Aragoi ibaia da, inguru guzti horretan, merindadeen arteko muga, salbu, Kaparroso-Arradan pasatzen da ibaiaren ezkeraldera. Holako azterketa eta ikerketa historikoeekin argiago izango genuke euskararen mugak zer ikusirik ote duen merindade horretan. Nafarroa Garaian bestalde, 11 artziprestazgo zituen Iruñeko elizak, XVII. menderarte, zeren eta kendu behar baitira, Gipuzkoakoa eta Valdonsella. Aibar, Berrotza, Deierrri, Arakil, Orba, Ibargoiti, Longida eta Anue ziren, beraz, beti ere ibar izenekin eta agian, aipaturiko azpieskualdekin. Hortik pasatu beharko ginatete ikerketara, erakunde hauek, euskararen azpieskalkien izan ditzaketen harremana, zerikusia edo kidekotasuna. Ikertzeko dago hori ere. Nafarroan ez bada ere, Alfontso Irigoienen eraginez eta erabakiz, Aragoira pasatu zen eskualde handi bat, elizak Valdonsella deitua. 1745erarte, 48 herri, eskualde horietakoak ziren eta ez Aragoikoak, gero pasatu ziren, eta gaur ere hala dira, Jakako elizbarrutira. Lehenago, Erdi Aroan, galdu zituen Exea, Tauste, -euskaraz, Deustia- eta Luna herriak. Beraz, konturatzen bazarete gaurko Zaragozako probintziak, Huescakoen eta Nafarrokoen artean egiten duen eskualde zabala da hori, “Cinco Villas” ere deitua. Tartean dago, Petilla de Aragoneko barrendegia, Nafarroa izaten jarraitzen duena. Eskualde honen azterketa linguistiko-toponimikorik egin gabe dagoela, uste dut. Garai hartan Aragoira, erreinuz, pasatu bazen ere, euskara antzina bertan hitz egitea posible zitekeen.

* * *

Eta Iparraldera pasatuz, Jean-Baptiste Orpustanek aipatu bezala, geroago Lapurdiko honekikoak baino zaharragoa da elizarekiko Lapurdi, hots, Baionako diozesiarena, alegia, egungo **Lapurdi**, gehi **Arberoa**, **Baigorri**, **Ortzaize**, **Garazi**, gehi aipatu diren XVII. mendean Iruñera pasatutako lau. Benetako Lapurdiren muga, **Pasaiako** badien jartzen baitzuen eta, ez Bidasoan, Haristoy apaizak. Jakina da, bestalde, Napoleonen Konkordatorarte, Nafarroa Behereko hiru eskualdeak, alegia, **Oztibarre**, **Amikuze** eta **Agramondarren** jaurerria, Akizeko diozesikoak zirela. Alderantziz, Zuberoa Olorueko zen. Hemen ere zenbait dotrinak egiaztatzen digu aipatzen dena. Iparraldean bertan ere, Oloroeko diozesi ohian Zuberoako artziprestazgoaz gain, Ossau, Aspe eta Garenx ez lirakeke ikertu behar? Akizekoan, Amikuze eta Lapurdiko Iparraldean dauden: Seignanx-Gosse eta Chalosse. Agian, aurkikuntza interesgarriak lortuko genituzke. Baliabide faltaz ez dut Iparraldeko gehiago aztertzeko modurik izan.

* * *

Azkenik, zenbait galdera egingo nituzke. Euskalkien eta tribu leinuen arteko kide-tasuna, behin baino gehiagotan aipatu duguna. Zehazki, eskualdez-eskualde, ikertzeko dagoena. Katalanek “vila mercat” deitzen dutena alegia, merkatu hirien eragina azpieskalkietan. Jakin badakigu, Gipuzkoan 6 zirela, hori aspaldian argitaratua du, Juan San Martinek: Ordizia, Tolosa, Donostia, Azpeitia, Arrasate eta Elgoibar. Bizkaian, ordea: Durango, Markina, Gernika, Mungia, Bilbo eta Balmaseda. Arratiako merindadeak, txandaka baitzuten merkatuak, agian, Areatza/Billarro ez zelako handitu. Araban begiratu behar litzateke merkatu zaharrenetarikoa bat, Aguraingoa. Nafarroan eta Iparraldean ere, interesgarria litzateke ikertzea.



Bide azpiegituren eragina ere ikertzeke dago. Beste gai garrantzitsu bat, zenbait aipamen egin badituz ere, euskararen muga historikoen bazterrak, ez bakarrik toponimian, baita ere antzinako dokumentazioan eta beste... ikertu beharra dago, bereziki, aipatu ditudan eskualde horietakoak.

